



NAZIOMETROA

Euskal Burujabetzaren Barometroa

2020-2025 bilakaera
Ipar Euskal Herria



TELESFORO
MONZON
eLab



UPV EHU

partehartuz
IKERKETA TALDEA

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

SARRERA	4
OHAR METODOLOGIKOAK	6
IRAKURKETA	10
1. Lurralde antolaketa. Eskumenak eta harremanak	17
2. Erabakitze eskubidea	28
3. Euskal estatu eta independentzia	32
4. Gai koiunturalak	38

SARRERA


SARRERA

2020an abiatu zenetik, Naziometroa – Euskal Burujabetzaren Barometroa tresna egonkor eta fidagarria bihurtu da euskal gizartearen joera politiko, identitario eta sozialak neurtzeko. Hamarkada erdi honetan, zazpi neurketa egin dira Euskal Herri osoan, beraz, baita Ipar Euskal Herrian ere.

Neurketa horiek aukera eman digute lurralde honetan ere herritarren iritziak modu sistematikoa jasotzeko: burujabetzaren inguruko eskumen-banaketa eta perspektibak, erabakitzeko eskubidearekiko jarrerak, euskal estatuaren ideiarekiko hurbiltasuna, identitate aniztunen konfigurazioa, hizkuntza-ohiturak, euskara eta hezkuntza, osasungintza, gizartean zabalitzen ari diren jarrera erreakzionarioak edota migrazioarekiko pertzepzioak, besteak beste.

Lan honek 2020-2025 aldiko bilakaeraren ikuspegi konparatiboa eskaintzen du, eta bost urte hauetan bildutako datuen bidez posible da ulertzea nola eboluzionatu duten jarrerak Ipar Euskal Herrian eta Euskal Herriko osotasunarekin parekatu. Txosten honek, beraz, ez du datu estatistikoaren irakurketa soil bat proposatzen; Ipar Euskal Herriko gizarte-dinamikak eta burujabetzaren inguruko gogoeta politikoa modu zabalago eta sakonago batean kokatzeko oinarri kualitatibo eta kolektibo bat ere eskaintzen du.

OHAR METODOLOGIKOAK



Laginketa eta lagina

Laginketa mistoa da:

- Laginaren zati bat online komunitate edo panel baten bidez osatzen da, eta parte-hartzaileak herrialdearen, sexuaren eta adinaren arabera kuoten bidez hautatu dira.
- Beste zati bat inkesta telefoniko bidez egin da, finko eta mugikorretara egindako deiak erabiliz. Kasu horretan, laginketa polietapikoa eta estratifikatua aplikatu da (herrialdea eta udalerraren tamaina kontuan hartuta) udalerriak hautatu arte; ondoren, sexuaren eta adinaren arabera kuotak erabiliz aukeratu dira inkestatuak.

Inkesta guztiek Euskal Herri osoa hartzen dute (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea, Zuberoa eta Lapurdi). Inkesta bakoitzean, online eta telefono bidezko erantzunak batuta, 1.200-1.600 inguruko lagina lortu da,

Haztapen-irizpideak

Datuak ondoren haztatu dira. Honako aldagaiak hartu dira kontuan:


- Sexua/generoa
- Adina
- Jaiolekua
- Euskara gaitasuna
- Ikasketa maila
- Bozka oroitzapena (Eusko Legebiltzarra, Nafarroako Parlamentua eta Frantziako presidentzialetako lehen itzulia)

Galdera sorta eta iraupena: Inkesta bakoitzak 150 iteminguru izan ditu, eta erantzuteko batz besteko iraupena 11 minutukoa izan da.

OHAR METODOLOGIKOAK

Neurketetako laginak eta gaiak:

Neurketa	Lagina	Uneko gaia(k)
1. neurketa: 2020/11	1.289	Pandemia, COVID-19a eta burujabetza,
2. neurketa: 2021/03	1.201	Euskal Selekzioa, "Euskal Herria" terminoa, Nafarroaren harremanak beste lurraldeekin (Nafarroa Garaian), bigarren etxebizitza (Euskal Hirigune Elkargoan), Next Generation (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan)
3. neurketa: 2021/11	610	Larrialdi klimatikoa, Aiete: 10 urte
4. neurketa: 2022/04	1.400	Hezkuntza
5. neurketa: 2023/03	1.597	Osasungintza
6. neurketa: 2024/04	1.422	Pertenentzia
7. neurketa: 2025/03	1.335	Jarrera erreakzionarioak, migrazioen aurreko jarrera



IRAKURKETA

Eskumenak

Instituzionalari buruzko iritziak neurtuta, eskumen gehiago dituzten erkidegoen eredia da aukera gogokoena. Bai Euskal Herrian, bai Ipar Euskal Herrian eskumen gehiago dituzten erkidegoen eredia eta erabakitzeko-eskubidea aitortzen duen eredia antzeko mailatan dabilta urteetan zehar. %25-30 inguruan lehenak, %30-40 artean bigarrenak. Alde nabarmenena autonomia gehiagoko nahiaren bueltan ikusten da, Ipar Euskal Herrian hautu nagusia izanik. Bietan, eredu zentralizatuagoak dira atxikimendu gutxien jasotzen dutenak.

Eskumenengatik galdetuta, Ipar Euskal Herrian gehiengo batek egungoa ontzat ematen du (%54), baina bigarren multzo nagusia %25a gaindituz, eskumen gehiago nahi dutenena da (%27 zehazki). Euskal Herri mailan multzo hau oraindik eta handiagoa da, %44koa, multzo nagusia izanik. Berriro ere, bi eremuetan estatu zentralizatu batekiko atxikimendua oso minoritarioa da.

Pandemia baten testuinguruan, hori kudeatzeko erantzukizunari dagokionez, Ipar Euskal Herriko erantzunek iritzi ezberdina erakusten dute EH osoko datuekin alderatuz. Frantziako Gobernuari pisu handiagoa ematen diote (%40,6), eta Europako Batasunari askoz txikiagoa (%11,2). Aldiz, hurbileko administrazioari lehentasuna ematen diotenak —Euskal Hirigune Elkargoa— %30,3 dira, EH osoan %29,7 den bitartean. Datu hauek iradokitzen dute Ipar Euskal Herrian estatu mailako kudeaketarekiko konfiantza apur bat handiagoa dela, baina aldi berean tokiko gobernantzaren aldeko proportzioa nabarmena dela, EHko mailaren parekoa, baita pandemia baten testuinguruan ere bai.

Egoera normalizatu batean, osasungintzaren kudeaketari dagokionez, Ipar Euskal Herriko herritarren %36,4k uste du hurbileko administrazio batek Estatuak baino zerbitzu hobea emango lukeela, eta %22,4k berdina izango litzatekeela dio. Zerbitzu okerragoa izango litzatekeela uste dutenak %21,2 dira. Horrek erakusten du tokiko kudeaketarekiko konfiantza nahiko handia dela. Aldi berean, “ez dakit”-en maila handia da (%20,1).

Migratzeko konpetentzien kasuan, Ipar Euskal Herriak EH osoko joera orokorra partekatzen du: migratzeko eskumenak hurbileko erakundeek edukitzea nahi dute gehienek (%47,9), EH osoan bezala (%46,6). Alde handiena estatuari emandako pisuan dago: Iparraldean soilik %17,1ek babesten dute aukera hori, EH osoan %30,4 diren bitartean. Bestalde, ED/EE aukeraren proportzioa handia da Iparraldean (34,5).

Lurraldeen arteko harremanak

Lurraldeen arteko harremanei buruz galdetzean, Ipar Euskal Herriari harremanak sakontzearen aldeko jarrera handiagoa da Euskal Herri osoko datuekin alderatuta. “Bakoitza bere aldetik jarraitzea” aukera EH osoan %29,8 da, Iparraldean %6,4. Aitzitik, Ipar Euskal Herriko herritarren artean ohikoenak “harreman gehiago izatea” (%44,9) eta “erakunde bateratu edo partekaturen bat sortzea” (%32,2) dira; biak batera hartuta, ia bostetik lauk elkarrekiko artikulazio handiagoa nahi dute. EH osoa kontuan hartuta bi aukeren batura %58koa da.

Harreman gehiago izatearen alde dauden datuek 2020 eta 2021eko seriean ere baieztatzen dute joera hori. Euskal Herri osoan aldekoak %79–77 badira ere, Ipar Euskal Herriari (Euskal Elkargoaren eremuan) 2020an are handiagoa da (%83,2), eta 2021ean ere oso altua (%76,5). Kontrako jarrera ia anekdotikoa da, %6–7.

Osasun sistemak integratzeari buruzko galderari dagokionean, bai Euskal Herrian bai Iparraldean integrazio handiagoaren aldeko hautua nagusitzen da. EH osoan gehiago argiak (%50,4) integrazio handiagoa nahi du, Ipar Euskal Herrian proportzio hori baxuagoa da (%43). Aldi berean, "orain bezala hobe" aukera indartsuagoa da Iparraldean (%37,6), EHn baino (%30,6).

Hezkuntzaren arloan, Ipar Euskal Herriak jarrera oso integratzaileak erakusten ditu. Hiruko administrazioen arteko hezkuntza erakunde bateratu baten ideia baloratzerakoan, Iparraldeko herritarrek adostasun maila altuagoa adierazten dute: "oso ados" direnak %26,9 dira, EH osoan %18,5 diren bitartean. "Ados" direnak ere antzeko proportzioan ageri dira (%27,8). Kontrako iritzien pisua oso txikia da (%5,7 "desados"; %4,8 "oso desados").

Joera hori oraindik agerikoagoa da curriculumeko eduki batzuk bateratzeari buruz galdetzean. Ipar Euskal Herrian "oso ados" direnak %33,2 dira, EH osoan %18,1 diren bitartean; eta "ados" direnak ere proportzio altuan ageri dira (%34,9). Hau da, Ipar Euskal Herrian %68 inguruk curriculum bateratuaren alde egiten dute, EH osoan %63 inguru. Aurkako jarrerak oso txikiak dira.

Erabakitze eskubidea

Ipar Euskal Herriko hautetsiak hautatzeko moduaren inguruan, argi ageri da herritarrek nahiago dutela zuzenean aukeratu. %60 dira modu honetan egitea nahiago dutenak, oraingo eredu babesten duen %36aren aurrean.

Ipar Euskal Herriak bere etorkizun politikoa erabakitze eskubidea izan behar ote duen galdetzean, oro har, aldekotasuna nagusi da. EH osoan baiezkoa %55–68 artean mugitzen bada, Ipar Euskal Herrian tarte hori piska bat estuagoa da: %54,9 eta %62 artean. 2024an, datua igo egin da (%59,9). Bestalde, ezezkoa Ipar Euskal Herrian %27–33 artean mugitu da. EH osoan %16–25 inguruan ibili da.

Erreferendum baten legezko aukera aztertzean—hau da, lurralde bateko gehiengo politikoak erabakitze borondatea izanez gero Estatuak zer egin behar lukeen—, Ipar Euskal Herriko datuek berriro ere joera nahiko demokratizatzailea erakusten dute, EHko joerarekin bat etorriz. 2020an, Iparraldean %75,2k uste zuten erreferenduma onartu behar zela; datu hori EH osoarena baino altuagoa zen. 2021 eta 2022an ere oso altuak dira (%71,8 eta %67). Hala ere, 2024an %66,3ra jaisten da eta 2025ean beste jaitsiera bat gertatzen da (%60,7). Jaitsiera bada ere, oraindik ere gehiengo handiak uste du Estatuak erreferenduma onartu behar lukeela. “Debekatu” aukerak, aldiz, %14–24ko tartean mugitu da.

Euskal Estatu

Euskal Estatuaren gaia aztertzean, lehenengo irudi orokorra eskaintzen duten datuak dira Frantziatik/ Espainiatik independizatzearikiko adostasun-mailak. Ipar Euskal Herriko emaitzek argi erakusten dute independentziaren inguruko jarrera nagusiak eszeptikoak direla, eta joera hori nahiko egonkorra izan da urteetan. “Oso ados” + “ados” direnak %19 eta %30 artean ibili dira, eta 2025ean minimo batera jaisten dira (%19). Kontrara, “oso desados” + “desados” erantzunak dira nagusi (%46–55 bitartean urte gehienetan). Aipagarria da “ez ados, ez desados” kategoriaren pisua (%19–27) ere handia dela. Euskal Herriarekin alderatuta, datuak nahiko antzekoak dira, Ipar Euskal Herrian kontrako jarrera piska bat altuagoa izanik.

Independentziaren inguruko eszeptizismo hori, ordea, modu zabalagoan formulatutako galderetan ez da horren garbi errepikatzen. Euskal Estatuaren alde edo kontra galdetzean, Ipar Euskal Herriko portzentajeak aldatu egiten dira. 2020–2025 artean, Euskal Estatuaren alde daudenak askotan kontrakoak baino gehiago dira, nahiz eta joera irregularra izan. Lehenak %35–40 artean mugitu dira eta kontrakoak %25–30 artean. Abstentzio handia ere nabarmentzekoa da (%16–30).

Euskal Estatu hipotetiko batek herritarren bizi-kalitatean izango lukeen eraginari buruz, Ipar Euskal Herriko jarrerak ez dira hain eszeptikoak. Izan ere, "hobeto" biziko liratekeela uste dutenak EH osoan baino gehiago dira (%34,1, EH osoan %30,4). "Okerrago" erantzunak, berriz, txikiagoak dira Ipar Euskal Herrian (%25,7) EH osoarekin alderatuta (%31,5). Hau da, independentziari ezezko joera oso nabarmena izan arren, Euskal Estatu baten funtzionamendu praktikoari dagokionez, Iparraldeko pertzepzioak ez dira hain negatiboak.

Ekonomiaren ikuspegitik ere joerak errepikatzen dira. Euskal Estatu baten bideragarritasun ekonomikoaren inguruko iritzia positiboa da bai Ipar Euskal Herrian bai Euskal Herri osoan.

Azkenik, Euskal Estatu batek erronka ekonomiko eta sozialei nola erantzungo liekeen galdetzean, Ipar Euskal Herriko datuek emaitza nabarmen interesgarria erakusten dute: "hobeto" edo "askoz hobeto" erantzungo lukeela uste dutenak gehiago dira (%41 inguru) eta baita EH osokoak baino gehiago ere (%32 inguru). Kontrastean, "okerrago" edo "askoz okerrago" erantzungo lukeela uste dutenak ere Euskal Herrian baino gehiago dira Ipar Euskal Herrian (%20 vs %24), baina hala ere hobeto erantzungo lukeela uste dutenen azpitik.

Gai koiunturalak

Nabarmena da Ipar Euskal Herrian lurralde-kontzientzia oso sendoa dela: inkestaturen %68k Euskal Herria zazpi lurraldeek osatzen dutela diote, eta eremuaren izendapenean ere "Pays Basque" terminoa Euskal Herriarekin lotzen da eta harrera handiena du (%23). Badirudi, beraz, euskal identitate zabala eroso dela iparraldeko gizartean

Euskal selekzioaren inguruko jarreretan gehiengoak (%59) jokalariek hautatzeko aukera ematea onartzen du eta Espainia/Frantziaren aurkako norgehiagoka ofizialak ere ongi ikusita daude (%49,5).

Gai sozialetara pasatuta, etxebizitzaren inguruko kezka handia da: Ipar Euskal Herriko herritarrek %71ean arazo handitzat jotzen dute, eta %59k bigarren etxebizitzaren erosketa mugatzea nahi dute.

Osasun-sistemaren balorazioa moderatua da (5,6/10) eta Euskal Herri osokoaren azpitik dago (5,8).


Azkenik, hezkuntzan kalitatearen pertzepzioa antzekoa da Ipar Euskal Herrian eta Euskal Herrian. Eskola pribatuek dute pertzepzio onena (%60 eta %55 oso ona eta ona hurrenez hurren), ondoren Ikastolek (%46 eta %53). Iparraldearen kasuan, Eskola publiko elebidunetan (Ikasbi) eta Frantsesezko eskola publikoetan ere galdetu da eta hauek hurrenkera horretan jaso dute balorazio txikiak (%39 eta %33 hurrenez hurren).




1. LURRALDE ANTOLAKETA. ESKUMENAK ETA HARREMANAK

Espainiako / Frantziako Estatuaren lurralde-antolaketarako formula batzuk irakurriko dituzu.
Aukeratu mesedez zein duzun gogokoen.

Euskal Herria



Ipar Euskal Herria




- Egungoa baino estatu ZENTRALIZATUAGOA
- Gaur egungo eredu autonomikoa* / GAUR EGUNGO ANTOLAKETA mantentzea
- ESKUMEN EDO KONPETENTZIA GEHIAGO DUTEN ERKIDEGOEZ osatutako estatu bat* / Estatu DESZENTRALIZATUAGOA lurraldeei AUTONOMIA GEHIAGO emanez
- ERKIDEGOEI ERABAKITZEKO-ESKUBIDEA AITORTZEN dien Estatua* / Herrien AUTODETERMINAZIO-ESKUBIDEA aitortzen duen Estatua (Euskal Herria, Britainia, Kortsika.)
- ED/EE

Zure ustez, Euskal Autonomia Erkidegoko / Euskal Elkargoko / Nafarroako Foru Komunitatearen egungo kompetentzia maila?


Euskal Herria

Ipar Euskal Herria




■ Konpetentzia gehiago beharko genuke. ■ Egokia da, ez nuke aldaketarik egingo. ■ Konpetentzia gutxiago beharko genuke. ■ Estatu guztiz zentralizatu bat beharko genuke

Bakarra izan beharko balu zer administraziok hartu beharko luke pandemiaren kudeaketa zuzena?




(EHE) Gaur egun Estatuak kudeatzen du osasungintza. Zure ustez, Estatuak kudeatu ordez, hurbilagoko administrazioak kudeatuta, herritarrek zerbitzu hobea, berdina edo okerragoa jasoko lukete?

Ipar Euskal Herria



- Zerbitzu hobea jasoko lukete
- Berdina
- Zerbitzu okerragoa jasoko lukete
- ED / EE

Migrazio* konpetentziak nork **eduki beharko lituzke?**




Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Elkargoaren artean zein harreman politiko nahiago zenuke?




Edozein kasutan, Nafarroako Foru Komunitatea, Euskal Hirigune Elkargoa (Iparraldea) eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean, orain arte bezala bakoitzak bere erkidegoan jarraituta, harreman gehiago izatearen alde ala kontra zaude?

Euskal Herria




Ipar Euskal Herria




— Alde — Kontra — ED/EE

Iruditzen zaizu Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoaren osasun sistema ezberdinen artean




Euskadiko Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoko administrazioen artean harremanak indartzeko Hezkuntza erakunde bat sortuko balute zein adostasun maila izango zenuke?

Euskal Herria



Ipar Euskal Herria



Oso ados

Ados


Ez ados, ez desados

Desados

Oso desados

Ez dakit


Curriculumari dagokionez, hiru administrazioiek hezkuntza eduki batzuk adostu beharko lituzkete?



2. ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Ipar Euskal Herriko hautetsiak hautatzeko zein aukera nahiago duzu?

Ipar Euskal Herria




■ Bozka bidez zuzenean herritarrek hautatuta ■ Orain bezala, herri hauteskundeetatik eratorrita ■ ED /EE


Eremu administratibo hauetako bakoitzak bere etorkizun politikoa erabakitzeke eskubidea izan beharko luke?

Euskal Hirigune Elkargoak (Iparraldeak)

Euskal Herria




Ipar Euskal Herria




Zure ustez, Eusko Legebiltzarrean / Nafarroako Parlamentuan / Euskal Hirigune Elkargoan adostasun politikoa egongo balitz lurralde honen etorkizun politikoa erreferendum bidez erabakitzearen alde, Espainiako/Frantsiako Gobernuak onartu edo debekatu egin beharko luke

Euskal Herria



Ipar Euskal Herria




3. EUSKAL ESTATUA ETA INDEPENDENTZIA




Zein neurritan zaude ados Espainiatik / Frantziatik independizatzearekin?

Euskal Herria



Ipar Euskal Herria




3. EUSKAL ESTATUA ETA INDEPENDENTZIA


- Demagun Euskal Autonomia Erkidegoan/Euskal Hirigune Elkargoan alderdi politiko guztiek edo gehienek adostu dutela Euskal Estatuari buruzko erreferenduma egitea eta Madrilek/Parisek onartu duela, beraz erreferenduma guztiz ofiziala eta onartua da.
- Demagun Nafarroako Foru Komunitatean alderdi politiko guztiek edo gehienek adostu dutela Nafarroa barne duen Euskal Estatuari buruzko erreferenduma egitea eta Madrilek onartu duela, beraz erreferenduma guztiz ofiziala eta onartua da

Egoera horretan, Euskal Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke?


Euskal Herria




Ipar Euskal Herria




Euskal Estatu propioa sortuko balitz, orokorrean, hobeto, berdin edo okerrago biziko ginatekeela uste duzu?



Zein adostasun maila duzu hurrengo esaldiarekin: Erreferendum bitartez Euskal Estatua sortzea erabakiko balitz, etorkizunean Estatu horren bideragarritasun ekonomikoak erabat bermatuta legoke.




Egoera hipotetiko batean, zure ustez egungo egoerarekin alderatuta nola uste duzu Euskal Estatu batek erantzungo liekeela egun dauden erronka ekonomiko eta sozialei?




4. GAI KOIUNTURALAK




Euskal Herria nortzuk osatzen dute




Eremua izendatzeko termino egokiena




Zure ustez, hiru administrazio eremuetako (Euskal Hirigune Elkargoa, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea) jokalariek osatutako Euskal Futbol Selekzioak nazioarteko txapelketa ofizialak jokatzeko aukera eduki beharko luke?




Zer irudituko litzaizuke Euskal Selekzioak, besteak beste, Espainiako/Frantsiako selekzioaren aurka lehiatzea nazioarteko lehiaketa ofizialetan?




Euskal Hirigune Elkargoan, etxebizitzaren gaia da:




Zure iritziz Euskal Hirugune Elkargoan bigarren etxebizitza erosteko eskubidea emendatu, bere horretan mantendu edo mugatu beharko litzateke?




Oro har, Otik 10era nola baloratzen duzu gure osasun-sistemaren funtzionamendua?



Nolako esango zenuke dela irakaskuntzaren kalitatea... (Oso ona + ona)



Hezkuntza-sistemak beharrezko tresnak eta baliabideak jarri behar lituzke ikasle guztien euskalduntzea bermatzeko?





NAZIOMETROA

Euskal Burujabetzaren Barometroa

2020-2025 BILAKAERA IPAR EUSKAL HERRIA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

TMeLab-en ekimenek erakunde hauen dirulaguntza dute.



TELESFORO
MONZON
eLab



partehartuz
IKERKETA TALDEA